

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera erabitzzaileek lana lortzea izango da. Horretarako, lehendabizi enpresa txiki nahiz handiekin kontaktatuko dugu, langile bila dabiltzanen berri jakiteko. Behin inguruko enpresa eta dendekin hitz egin ondoren, lan egoera aztertuko genuke eta enpresek langileetaz espero dutena definitu. Lan eskaintza argi izanik informazio zehatza emago genuke gure aplikazioan.

Gure helburua gazteek lana bilatzeko orduan dituzten arazoak eta oztopoak konpontzea da. Gure proiektua martxan jarri ondoren gazteek esperientzia irabaziko lukete eta enpresek langileak. Enpresak eta gazteak kontaktuan jartzeaz arduratuko ginateke, baita izan ditzaketen kezkak erantzuteaz ere.

Webgunearen eta aplikazioaren software eta diseinua kanpoko enpresa baten esku utziko genituzke, profesionalagoa izan dadin.

